

## LLUVIAS PERSISTENTES. 8 Y 9 DE MAYO

Durante los días 8 y 9 de mayo la CAPV se ve afectada por un centro de bajas presiones, centrado en los Pirineos, que origina vientos del norte con precipitaciones de intensidad moderada y persistentes durante los dos días. Estas precipitaciones resultan ser más generalizadas el día 8 y afectan más al litoral este de Gipuzkoa el día 9 (ver figuras 2.1 y 2.2).

Se sobrepasa el nivel de alerta en Oñati, Oiartzun y Agauntza, mientras que el río Jauzubia (Irún) se desborda en algún punto. Asimismo, se producen numerosos desprendimientos de tierra y se forman balsas de agua en las carreteras.

La situación en superficie está marcada por la presencia de un centro de bajas presiones sobre el Mediterráneo, que se desplaza hacia el Pirineo aumentando ligeramente su presión. El día 8, la posición de esta baja provoca vientos del nordeste sobre el País Vasco y un frente cálido cruza el nordeste peninsular (ver figura 2.3). El día 9, la borrasca envía vientos del norte, más intensos que el día anterior (ver figura 2.4). La situación en los niveles altos de la atmósfera no es muy determinante ya que, a pesar de existir una vaguada, ésta no es profunda, y la temperatura no es lo suficientemente fría como para provocar inestabilidades verticales significativas.

En la tabla 2.1 se resumen los valores de precipitación más significativos. Durante el día 8 se recoge una media de 30 mm en Gipuzkoa y Bizkaia, mientras que en Araba la media es de 15 mm. A lo largo del día 9 en la estación de Jaizkibel se recogen 52,1 mm. En la zona de Oiartzun se acumula una cantidad de precipitación superior a 100 mm en los dos días (179,4 mm en Artikutza, Navarra, 157,5 mm en Añarbe y 148,4 mm en Endara, Gipuzkoa).

Tabla 2.1. Precipitaciones registradas en varias estaciones durante los días 8 y 9 de mayo.

Estación	Precipitación (mm) 08/05/02	Precipitación (mm) 09/05/02	Precipitación (mm) del 08 al 09/05/02
Barazar	41,8	66,1	107,9
Igorre	41,6	26,6	68,2
Añarbe	25	132,5	157,5
Leitzaran	30	92,8	122,8

Berastegi	24,6	60,8	85,4
Aitzu	26,7	51	77,7
Ereñozu	21,3	52,9	74,2
Andoain	32,2	37,8	70
Aizarnazabal	35,8	34,1	69,9
Jaizkibel	17,2	52,1	69,3
Bajo Deba	28,3	39,9	68,2
Bidania	27,3	40,2	67,5
Zizurkil	28,5	36	64,5

## EURI IRAUNKORRAK. MAIATZAREN 8 ETA 9AN

Maiatzaren 8 eta 9an EAE Pirinioetan kokatutako depresio-gune baten eraginpean gertatu zen. Depresio horrek bi egunetan ipar-haizea ekarri zuen, eta haizearekin batera indar ertaineko euri iraunkorrak. Prezipitazioak lurralde osoan jasan ziren hilaren 8an, eta biharamunean batez ere Gipuzkoako ekialdeko kostaldean (ikus 2.1 eta 2.2 irudiak).

Oñati, Oiartzun eta Agauntza estazioetan larrialdi-maila gainditu zen, eta Jaizubia ibaiak (Irunen) gainezka egin zuen zenbait lekutan. Gainera, lur-jausiak gertatu ziren, eta errepideetan ur-putzuak egin ziren.

Azaleko egoeran Mediterraneo inguruan kokatutako depresio-guneak agintzen du, depresio hori Pirinio alderantz baitoa, presioa zertxobait igoz. Hilaren 8an, depresioak, kokalekuagatik, ipar-ekialdeko haizea bidaltzen du Euskal Autonomia Erkidego aldera, eta fronte bero batek penintsularen ipar-ekialdea zeharkatzen du (ikus 2.3 irudia). Maiatzaren 9an ipar-haizea eragiten du depresioak, bezperakoa baino gogorragoa (ikus 2.4 irudia). Atmosferako goiko mailetako egoera ez da erabakiorra, aska barometriko bat eratu den arren, ez baita oso sakona, eta tenperatura ez da ezegonkortasun bertikal esanguratsuak eragiteko behar bezain hotza.

Beheraxeago datorren 2.1 taulan prezipitazio-balio esanguratsuak datoz, labur-labur. Maiatzaren 8an batez beste 30 mm batu ziren Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Araban, berriz, 15 mm-koa izan zen batez beste jasotakoa. Hilaren 9an 52,1 mm batu ziren Jaizkibelgo estazioan, egun osoan zehar. Oiartzun inguruan 100 mm baino gehiago hartu zen bi egunetan (Nafarroan, 179,4 mm Artikutzan; eta Gipuzkoan, 157,5 mm Añarben eta 148,4 mm Endaran).

2.1. taula. Maiatzaren 8an eta 9an zenbait estaziotan erregistratutako prezipitazioak.

Estazioa	Prezipitazioa (mm) 2002-05-08	Prezipitazioa (mm) 2002-05-09	Prezipitazioa (mm) 2002-05-08tik 9ra
Barazar	41,8	66,1	107,9
Igorre	41,6	26,6	68,2
Añarbe	25	132,5	157,5
Leitzarain	30	92,8	122,8
Berastegi	24,6	60,8	85,4
Aitzu	26,7	51	77,7
Ereñozu	21,3	52,9	74,2

Andoain	32,2	37,8	70
Aizarnazabal	35,8	34,1	69,9
Jaizkibel	17,2	52,1	69,3
Bajo Deba	28,3	39,9	68,2
Bidania	27,3	40,2	67,5
Zizurkil	28,5	36	64,5




Figura 2.1. Precipitación acumulada el día 08/05/2002  
2.1 irudia. 2002/05/08an pilatutako prezipitazioa




Figura 2.2. Precipitación acumulada el día 09/05/2002  
2.2 irudia. 2002/05/09an pilatutako prezipitazioa




Figura 2.3. Presión al nivel del mar y frentes. 08/05/2002 a las 00 UTC.  
 2.3. irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2002/05/08, 00tan UTC.




Figura 2.4. Presión al nivel del mar y frentes. 09/05/2002 a las 00 UTC.  
 2.4. irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2002/05/09, 00tan UTC.